Andoain elkarlanean

# Maider Laínez alkateak telefonoz erantzungo die andoaindarrei

***Alarma-egoerak irauten duen bitartean mantenduko da zerbitzua, herritarrekin komunikazio zuzena izateko***

Maider Laínez alkateak gaur goizean bideo batean iragarri duenez, telefono bidezko zuzeneko arreta-zerbitzua jarriko da martxan andoaindarrekin, herritarrekin zuzeneko komunikazioan beste urrats bat emateko.

Lainezen arabera, "*Esadazu, hemen nago, entzuten dizut*" da bere esaldi nagusietako bat, eta, ideia horretatik abiatuta, nahasmen eta kezka garai hauetan, garrantzitsua da herritarrek alkatearekin harreman hurbila eta zuzena izan ahal izatea. Zuzeneko entzutea eta komunikazio pertsonala beti dira aberasgarriak, eta, une honetan, gobernu-taldeak funtsezkotzat jotzen ditu.

Ildo horretatik, Andoaingo herritarrek edozein zalantza, iradokizun edo kexa planteatu nahi badute, **660 652 648** telefono zenbakira deitu besterik ez du izango, eta arreta eskainiko zaie. Unean uneko eskaerak erantzuten saiatzea da asmoa, baina gaiek datu gehiago edo azterketa handiagoa eskatzen badute, eskaera guztiak aztertuko dira, eta dagokion sailera bideratuko dira, ahalik eta lasterren erantzuteko.

**Bideoaren URLa:**

https://youtu.be/AWPIHkq1Rds

https://www.facebook.com/797018653647653/posts/3467031779979647/

https://twitter.com/AndoaingoUdala/status/1250772954067197960?s=19

Andoain, 2020ko apirilaren 16a

# La alcaldesa Maider Laínez responderá por teléfono a las y los andoaindarras

***El servicio se mantendrá durante la situación de alarma, para tener una comunicación directa con la ciudadanía***

La alcaldesa Maider Laínez ha anunciado esta mañana en un vídeo la puesta en marcha de un servicio de atención directa por teléfono con las y los andoaindarras, con el objetivo de dar un paso más en la comunicación directa con la ciudadanía.

Según Lainez, "*Dime, estoy aquí, te escucho*" es una de sus frases de cabecera y, a partir de esa idea, en estos tiempos de desconcierto e inquietud, es importante que la ciudadanía pueda tener una relación cercana y directa con la alcaldesa. La escucha directa y la comunicación personal son siempre enriquecedoras y, en estos momentos, el equipo de gobierno las considera más fundamentales, si cabe.

En este sentido, si la ciudadanía de Andoain quiere plantear cualquier duda, sugerencia o queja, no tendrá más que llamar al número de teléfono **660 652 648** y se les atenderá. Se tratará de contestar al momento, pero si las cuestiones requieren de más datos o de un estudio mayor, se analizarán todas las consultas y se canalizarán al departamento oportuno, para que sean contestadas lo antes posible.

**URL del video:**

https://youtu.be/AWPIHkq1Rds

https://www.facebook.com/797018653647653/posts/3467031779979647/

https://twitter.com/AndoaingoUdala/status/1250772954067197960?s=19

Andoain, 16 de abril de 2020